

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, MARKIZKO KONTZEJUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den abenduaren 18an aho batez onartu zuen Markizko Kontzejuaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiko.

Ondorioetan, Epaitegiak azpimarratu du ez dela 2017ko ekitaldirako aurrekontua egin eta 2 hornidura-kontratu lehendakariak esleitu dituela; ordea, kopurua aintzat hartuta, Kontzejuko Batzordeak esleitu behar zukeen. Halaber, GFAk kontzejuen esku jartzen duen eredu-orriaren arabera egindako Kontuen Liburuak ez du informatzen zein saldo kobratu eta ordaindu behar diren 2017ko abenduaren 31n.